

11/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

2024KO AZAROAREN 26ANEGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Elena Zaldua Miguel

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko azaroaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Elena Zaldua Miguelaritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta, gai-zerrendari heldu aurretik, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikuluan xedatutako aukeraz baliatuz, osoko bilkura honetako gai-zerrendan urgentziaz sartzeko gai bat planteatu du.

EUDELeK bidalitako emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta azaroaren 25ko adierazpena adostea proposatu du.

Hori horrela, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikuluan xedatutako gehiengo batzuz, Udaltzako, aho batez, honakoa onartu du:

BAKARRA. Gaurko osoko bilkurako gai-zerrendan sartzea, 4. puntu bezala, ondorengo gaia, ondorengo puntuari dagokion zenbaki korrelatiboa egotziz:

4. Azaroaren 25eko adierazpena, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta

Behin aurrekoa bozkatuta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2024ko azaroaren 5ean egindako ezohiko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- SAHARAKO DAHLA WILAYAKO YREFIA DAIAREKIN SENIDETZA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta udal honetako Udalbatzak, 2024ko martxoaren 21ean egindako ezohiko oso bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuela gogoratu du:

\\...

8.- ANOETAKO UDALA YREIFIA DAIRAREKIN SENIDETZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, 2024ko martxoaren 11n eta 350. sarrera-erregistro zenbakiarekin, Tolosaldea Sahararekin Elkarteak Udaletzeko erregistroan aurkeztutako senidetze eskaeraren edukia. Bertan adierazten den legez, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Tolosaldeako udalekin bilerak egiten jardun du azkenaldian, besteak beste, senidetzeen gaia landuz. Dagoeneko Tolosaldeako 28 herrietatik 7 dira Mendebaldeko Saharako daira (herri) batekin gaur egun senidetuak daudenak eta, kopuru hori bikoizteko helburuari jarraituz, Tolosaldea Sahararekin elkarteak eskaera egiten dio Anoetako Udalari Yreifia dairarekin senidetu dadin. Alkateak zehazten du honako puntu hau ez dela azken proposamen bat, hasierako mozio antzeko bat baizik, hots, aurrerabide bat senidetzeko bideak irekitzeko.

Alkatearen azalpenak bukatutakoan, EAJ taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta adierazi du zehaztasuna falta zaiola proposamenari, izan ere, senidetze hori arautzen duen hitzarmenik, kontraturik edo bestelako tresna juridikorik ezean, ezin dira ezagutu ekarri ditzakeen ondorio ekonomiko, juridiko eta bestelakoak.

Aurrekoak entzunda, Udalbatzako kide guztiak ados agertu dira senidetzearen ideiarekin, baina guztiak bat datoz oraindik inolako konpromisorik hartu ezin dutelako ideiarekin, gutxienez Tolosaldea Sahararekin Elkarteak senidetze-proposamen formal eta zehatzen bat aurkeztu eta horren gainean akordioaren bat hartu arte.

...//.

Jarraian eta adostutakoa betez, Yreifia eta Anoeta udalen senidetze akordioa aurkeztu du Alkateak:

SENIDETZE AKORDIOA


Herritarrek sufragio unibertsalaren bidez aukeratutako Yaraffiq eta ANDETA udaletako alkateek, kontuan hartuta herrien arteko harmonia, adiskidetasuna eta elkartasuna lortzeko eta mantentzeko balibideetako bat beren hirien arteko ideal eta interes komunen lotura dela; sinetsita gaude bi hirien arteko lankidetzak estuak ondasun material eta ez-materialak mantentzen eta hobetzen laguntzen duela, bakearen, askatasunaren eta oparotasunaren espirituak mugiarazita, honako helburu hauek lortzeko senidetzea eta elkarfanean aritzea erabaki dugu:

- Saharar herriari bere bidezko borrokan eta autodeterminazio-eskubidean laguntzea.
- Gatazkaren konponbide justu, baketsu eta iraunkorra lortzeko ekimenak babestea, giza eskubideen gutunaren errespetuan oinarrituta.
- Herrien artean elkartasun-, bake- eta ongizate-loturak izateko erabaki irmoa adieraztea.
- Erakundeen arteko harremanak garatzen laguntzea, bere eskumenen esparruan.
- Senidetutako hirien arteko harremanak eta bi udalen parte-hartze zuzena oinarrituko dituzten jarduerak gauzatzen saiatuko da, bai eta haien ehun sozial eta solidarioa gauzatzen ere.
- Udal-gobernuak saiatuko dira beren kolektibitateen artean zabaltzen herritarren portaerak inspiratu behar dituen elkartasun-ideala, arazoak konpontzeko eskura dauden tresnak partekatzen eta egokitzen ikasiz, nahiz eta horiek testuinguru desberdinetan garatu.
- Senidetze-itun honen indarraldia bi udalerrien borondatearen araberakoa izango da.

Ados gaudela adierazteko, agiri hau sinatzen dugu bi mila eta hogeita lauko urriaren hemeretziari.

ANDETA.....ko ALKATEA

.....الحمدية ko ALKATEA



Senidetze akordioaren aurkezpenarekin batera, Alkateak udalbatzari ahalmena eskatu dio gai honi dagokionean udalaren izenean erabakiak betearazteko.

Aurrekoak entzunda, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Yreifia eta Anoetako udala herri senide formalki deklaratzeko.

BIGARRENA. Senidetzearekin batera doan senidetze-akordioa onartzea.

HIRUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea, aurreko erabakiak betearazteko beharrezkoak diren agiriak sina ditzan.

LAUGARRENA. Udalbatzak behin betiko onarpena emandako erabakiaren berri ematea senidetzea egin nahi den herri honi.

3.- “LASARBE” A-14 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALAREN 2. ALDAKETAREN BI DOKUMENTU ALDUNDIRA BIDALTZEA.

Alkateak hitza hartu du eta 2024ko martxoaren 21an udalbatzan onartu ondoren jendaurrean egon zen Lasarbe A-14 eremuko Plan Partzialaren 2 aldatetaren ingurumen dokumentu estrategiko sinplifikatua aldundira bidaltzea onartzea eskatu du, aurreko bidalketan kanporan geratu baitzen. Bestalde, irailaren 25eko jasangarritasun departamenduko Ingurumen txosten estrategikora egokitutako dokumentua, 2024ko urrikoa, onartu eta aldundira bidaltzea plan partzialaren behin betikoz onartu dezan aldundiakeskatu du.

Aurrekoak entzunda, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. 2024ko martxoaren 21an udalbatzan onartu ondoren jendaurrean egon zen Lasarbe A-14 eremuko Plan Partzialaren 2 aldatetaren ingurumen dokumentu estrategiko sinplifikatua aldundira bidaltzea onartzea.

BIGARRENA. Irailaren 25eko jasangarritasun departamenduko Ingurumen txosten estrategikora egokitutako dokumentua, 2024ko urrikoa, onartu eta aldundira bidaltzea plan partzialaren behin betikoz onartu dezan aldundiak.

4.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.

Alkateak hitza hartu du eta EUDELEk bidalitako emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta azaroaren 25eko adierazpena adostea proposatu du.

Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA.EUDELEk bidalitako emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta azaroaren 25ko adierazpena onartzea.

II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

5.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2024ko urriaren 24tik 2024ko azaroaren 18ra bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

Azalpen horiek emanda, zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

6.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

481. DEKRETUA

2024.10.24

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2024ko iraileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko urriaren 24ko eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengo adierazten den:

“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko

ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko "programa" baten barruan ezkutaturako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garciarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.".

491. DEKRETUA

2024.10.24

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
"P" fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenaren nomina: 2024ko urriko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko urriaren 31ko eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

"I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko "programa" baten barruan ezkutaturako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garciarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.".

509. DEKRETUA

2024.11.06

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

Prozedura

Fotokopien zerbitzu-kontratua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
844696762	2024.08.07.	332,02 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko azaroaren 6an egindako eragozpeneko txostena.

Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.

Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

Helbideraturako gastua da, eta horretarako ez dago ez gastuaren onespenerik, are gutxiago haren konpromisorik, ezta obligazioaren aintzatespenik eta likidaziorik ere.

510. DEKRETUA

2024.11.06.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
CONTENEDORES SARASOLA, S.L.	B20917167

Prozedura

Zerbitzuak

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
F/2024/374	2024.06.29.	623,28 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko azaroaren 6an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Ez dago obligazioa aitortzeko egintzarik, ez espedienterik, ezta RCT dokumenturik ere. Kasu horretan, gastua 500 eurotik gorakoa da, eta, beraz, oinarria duen kontratua 6. artikuluan araututako prozeduraren arabera izapidetu beharko litzateke, zirkularraren 5.1 puntuan jasotako modalitateari dagokionez

516. DEKRETUA

2024.11.11

Hartzekodunak	IFZ / IFK
AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS	A60917978

Prozedura

Aseguru zerbitzuak

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
9453	2024.09.27.	805,20 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko azaroaren 8an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Anoetako Udaleko zinegotzien istripu poliza urtez urte kontraturik gabe eta inolako espedienterik izapidetu gabe ordaindu da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Gainera, beti enpresa berari ordaindu zaio. Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

517. DEKRETUA

2024.11.11

Hartzekodunak	Hartzekodunak
AXA AURORA VIDA S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS	AXA AURORA VIDA S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS

Prozedura

Aseguru zerbitzuak

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
9407	9407	9407

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko azaroaren 8an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Anoetako Udaleko udal langileen bizitza eta istripu aseguria urtez urte kontraturik gabe eta inolako espedienterik izapidetu gabe ordaindu da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Gainera, beti enpresa berari ordaindu zaio. Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

518. DEKRETUA

2024.11.11

Hartzekodunak	Hartzekodunak
LANDARRI, S.L.U.	B20531448

Prozedura

Hilerriko zerbitzuak

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
2407988003	2024.09.02.	282,16 €
2407988002	2024.09.02.	282,16 €
8988020	2024.08.30.	389,29 €
988015	2024.09.11.	282,16 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko azaroaren 8an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditi, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko; zerbitzua lizitazio publikora atera beharko litzateke.

Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion ez dokumenturik, ezta espedienterik ere. Landarriekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkerotik Anoetako Udalak Landarri enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.

519. DEKRETUA

2024.11.11

Hartzekodunak	Hartzekodunak
TOLOMENDI	G20326237

Prozedura

Zerbitzua

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
F-86	2024.09.12.	2.090,58 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko azaroaren 8an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditi, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.

Orokorrean, ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion ez dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpoko, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu baitzen. Horrezkerotik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.

Goian adierazitako gastua ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango lituzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

535. DEKRETUA

2024.11.12

Hartzekodunak	Hartzekodunak
RICOH ESPAÑA, S.L.U.	B82080177

Prozedura

Zerbitzua

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
	2024.11.07.	261,61 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko azaroaren 12an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.

Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

Helbideratutako gastua da, eta horretarako ez dago ez gastuaren onespenerik, are gutxiago haren konpromisorik, ezta obligazioaren aintzatespenik eta likidaziorik ere.

536. DEKRETUA

2024.11.12

Hartzekodunak	Hartzekodunak
SARENET S.A.U.	A48714489

Prozedura

Zerbitzua

Faktura zenbakia	Faktura zenbakia	Faktura zenbakia
P24101154	2024.10.01.	291,92 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko azaroaren 12an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Orain arte “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jartzen zion enpresak kopuru berdinagatik hilabetero helarazitako fakturei. Orain “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua jarri dio, baina kontratatutako 7 zerbitzuak berdina izaten jarraitzen du. Beraz, berriro ere, segidako traktuzko zerbitzua da, urtez kontratatzen etorri dena, eta ezin da kontratu txiki bidez esleitu.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko ondorengo espedientearen berri eman du:

- ❖ OMI 3/2023 espedientea, Alkateak 514. Dekretuz (2024ko azaroaren 7koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
636-E famili esku-hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 023/2024 FAKT-419 1700 2024.05.07	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 028/2024 FAKT-586 1700 2024.06.11	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 033/2024 FAKT-698 1700 2024.07.05.	844,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
NURA GIZARTE ELKARTEA G20779187	Herriko familiekin Giza Heziketa eskuhartzea, erreferentzi aurrekontuen arabera (espde. 636E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
725-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2024-F37 FAKT-428 1436 2024.05.12.	195,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2024-F49 FAKT-600 1436 2024.06.12.	260,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2024-F70 FAKT-705 1436 2024.07.16.	325,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena



ANOETAKO
UDALA

SUSANA ELENA CHAPARTEGUI ORTUN 44153322S	Sesiones individuales 20. artikulua (Barne-eragiketetako salbuespenak)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
708-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 117-2024 FAKT-361 3807 2024.04.26.	824,11 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 156-2024 FAKT-509 3807 2024.05.31	824,11 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 199-2024 FAKT-627 3807 2024.06.28.	824,10 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA G20745287	Anoetako esku hartze soziohezitzailea (Esku Hartze Familiarra) zerbitzua (espde. 708E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
Estimulazio tailerreko saioak	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2024/A129 FAKT-373 2026 2024.04.30.	217,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2024/A168 FAKT-517 2026 2024.05.31.	310,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa



ANOETAKO
UDALA

Faktura zk. 2024/A20 FAKT-634 2026 2024.06.28.	186,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL G20380879	Oroimen saioetako orduak
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

GALDE-ERREGUAK

7.- GALDE-ERREGUAK.

Nuria Carbonell Mirandak (EAJ taldea) azken egunetako haize-bolada bortitzek herrian kalterik eragin duten galdetu du. Alkateak pare bat orduz argia joan zela eta bide bat kaltetuak izan direla adierazi du, bestelako kalte larririk ez da ezagutzen.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:15tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Elena Zaldua Miguel